surfilm festibal™
www.surfilmfestibal.com

# Amstel Surfilm Festibal nº 8

## OLATU GARBIAK

**PATAGONIAk aurkeztutako ingurumenari buruzko jardunaldia**

## OLAS LIMPIAS

**Jornada de medio ambiente presentada por PATAGONIA**

*Erakusketa / Exposición*

**Skeleton Sea**

Aquarium

ekainak 9 junio – abuztuak 29 agosto

### Skeleton Sea, ingurumenari buruzko adierazpena

“Makilen” surf artea…

… eta latena, eta txankletena, eta enborrena, eta gure edozein hondartzetan aurki daitezkeen plastikoena...

Luis de Dios Mellada, Xandi Kreuzeder eta João Parrinha hiru lagun surflari dira, itsasoa maite dute, ingurunea babesten dute eta trebetasun magiko bat dute: eskultura ikusgarri eta poetikoen bidez munduari buruz duten ikuspegiari forma ematea. Artelan paregabeak, ingurumenari buruzko adierazpenak, kontzientzia kolektiboa erakartzekoak; ezaugarri horiek guztiak biltzeko gaitasuna dute pieza horiek.

Proiektua orain dela 6 urte baino gehiago abiatu zuten Azoreetara egindako bidaia batean. Segur aski, *beachbreak* galduen bila egindako ibilaldietan barrena topatutako zabor kantitatea ikusteak sortutako harriduraren ondorioz abiatu zuten proiektua. Honen ondorioz, topatutako objektuak pilatzeari ekin zioten, eta ez ausazko moduan, eskultura zoragarrien gisan baizik; naturaren ezaugarri eta animaliak irudikatzen zituzten pieza horiek. Mezua garbia zen: itsasoa suntsitzen ari gara, eta hori argi eta garbi esaten dizut sortu eta botatzen dugun eta itsasoak berak gure kostaldera itzultzen duen zaborrarekin eraikitako objektu naturalak irudikatzen dituzten artelan hauen bidez.

*Flip Flop Fish* talde honen sorkuntzetako bat da. 24 ordutan sortu zuten Fuerteventurako hondartza batean. Luis de Diosen hitzetan: *“Boluntarioz osatutako armada txikiaren laguntzaz hondartzetan aurkitutako zabor guztiaren artean, izugarrizko txankleta piloa zegoen. Osatzen zuten mendixka ikusita, etorkizuneko arrain tropikal baten ezkatak ziruditela bururatu zitzaigun. Horrela jaio zen proiektua”.*

Donostiako Amstel Surfing Festivalean (**Olatu garbiak**) **Skeleton Sea** taldeak artelanak eta instalazioak aurkeztuko ditu, *Bin Tin* edo *Cavalo Marinho*, esaterako. Halaber, lehen aldiz *Tuna* erakutsiko da. Objektuek Europa osoan zehar bidaiatu dute hona iritsi arte. Luis de Dios, Xandi Kreuzeder eta João Parrinharen *Tuna* azken proiektua Fuerteventuran sortu zen, 2009ko azaroan. Joan Parrinhak eraikitako *Cavalo Marinho* proiektua, berriz, 2009ko ekainean sortu zen Lisboan. *Bin Tin*, *Free Flip Flop*, *Hippo-Camp*, *AK 47 nº 2*, *Prestige*, *I Am the Sea*, *My Ex-Girlfriend*, *Octopusses* eta *The Admiral* gainerako objektuek Munichen dute jatorria.

**Skeleton Sea, manifiesto medio ambiental**

Arte surfero de “palos”…

… y de latas, y de chancletas, y de tronkos, y de plásticos varados en cualquiera de nuestras playas…

Luis de Dios Mellada, Xandi Kreuzeder y João Parrinha son 3 amigos, surfistas, amantes del mar, protectores de su entorno y que tienen una mágica habilidad, dar forma a su visión del mundo a través de unas increíbles y poéticas esculturas. Únicas obras de arte, manifiestos medio ambientales, reclamos para la conciencia colectiva, estas piezas tienen la capacidad de aunar todas estas características.

Su proyecto empezó hace más de 6 años durante un viaje a las Azores. Seguramente fue el desconcierto que les generaba la cantidad de basura que se encontraron a lo largo de sus caminatas en busca de *beachbreaks* perdidos. Esto les empujó a amontonar esta infinidad de objetos encontrados, y no de forma aleatoria, sino como maravillosas esculturas, piezas que emulaban símbolos y animales de la naturaleza. El mensaje era claro: nos estamos cargando el mar y te lo digo a la cara a través de estas obras de arte que emulan objetos naturales construidos con la mierda que producimos, tiramos y que el propio mar se encarga de devolver a nuestra costa.

*Flip Flop Fish* es una de las creaciones de este colectivo. Creado durante 24 horas en una playa de Fuerteventura. En palabras de Luis de Dios: *“Entre toda la basura que encontramos en las playas gracias a la pequeña armada de voluntarios, era increíble ver cuántas chancletas había. Viendo la montañita que formaban, se nos ocurrió que se parecían a las escamas de pez tropical futurístico. Así nació el proyecto”*.

Dentro del marco de **Olas limpias**, nuestra jornada de medio ambiente, **Skeleton Sea** mostrará objetos de arte e instalaciones como *Bin Tin* o *Cavalo Marinho*. También se exhibirá por primera vez *Tuna*. Los objetos han viajado desde toda Europa para llegar aquí. De Fuerteventura viene *Tuna*, el último proyecto de Luis de Dios, Xandi Kreuzeder y João Parrinha, creado en noviembre de 2009. *Cavalo Marinho*, construido por Joan Parrinha en junio de 2009, llega de Lisboa. Los otros objetos, como *Bin Tin*, *Free Flip Flop*, *Hippo-Camp*, *AK 47 nº 2*, *Prestige*, *I Am the Sea*, *My Ex-Girlfriend*, *Octopusses* y *The Admiral*, vienen todas de Munich.

*Filmak / Películas*
ekainak 9 junio

## Aquarium

Ingurumenari buruzko zinema-programazioa, *The Surfer's Path* aldizkariko Alex Dick Readek diseinatua
Programación de cine de medio ambiente diseñada por Alex Dick Read de *The Surfer´s Path*

*19:30*

*The Surf Film Contesteko ingurumenari buruzko film laburren emanaldia*
*Sesión de cortos de medio ambiente de The Surf Film Contest*

1. **El mar, mi alma. The Short**
2. **Soundings**
3. **Puri deitzen diote**
4. **De pie**

**Protect Our Waves**
Richard Stewart. Erresuma Batua / Reino Unido. 2010. 21 min.

Surfers Against Sewage taldeak Richard Stewarten filma aurkeztuko du, Quiksilver Foundation eta EOG Association for Conservation erakundeekin batera. Erresuma Batuko lehen olatuetako batzuk biltzen dituen gida da, eta arreta berezia jartzen die gaur egun aurre egin behar dieten ingurumeneko mehatxuei. Munduko surflari onenetako batzuk hartutako olatu ederrak, surflariek kutsadurari nola aurre egin diezaioketen erakusten duten animazioekin nahasten dira.

Surfers Against Sewage presenta, junto a Quiksilver Foundation y EOG Association for Conservation, una película de Richard Stewart. Una guía de algunas de las primeras olas del Reino Unido, centrándose especialmente en las amenazas medio ambientales a las que se enfrentan hoy día. Hermosas olas tomadas por algunos de los mejores surfistas del mundo mezcladas con animaciones que muestran cómo los surfers pueden enfrentarse a la polución.

## Cines Príncipe Zinemak

*22:00*
*Aurrestreinaldi bikaina, Patagoniak aurkeztua eta "The Surfers's Path" aldizkariak antolatua*
*Preestreno excepcional presentado por Patagonia y organizado por "The Surfer´s Path"*

**The Cove** (*The Cove*)
Louie Psihoyos. AEB / EE.UU. 2009. 91 min.

Izurdea mundu osoko animalia azkarrenetakoa eta espezie miretsienetakoa da. Hala ere, animalia hauekiko mirespena ezaugarri duen Japoniako kostaldeko herri txiki batean sekretu handi bat ezkutatzen da. Ekintzaile talde bat, Richard O'Barry izurde-entrenatzaile ezaguna buru duela, misio ezkutu eta arriskutsu batean murgiltzen da, leku honetan gertatzen dena munduari jakinarazteko. Aurtengo Dokumental Onenari Oskar Saria.

El delfín es uno de los animales más inteligentes y una de las especies más admiradas en todo el mundo. Sin embargo, en un pequeño pueblo de la costa de Japón que aparentemente se caracteriza por su devoción a estos animales, se esconde un gran secreto. Un grupo de activistas liderado por el conocido entrenador de delfines Richard O´Barry se embarca en una peligrosa misión encubierta para revelar al mundo lo que sucede en este lugar. Oscar al Mejor Documental este año.